



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2014ko ekainaren 18ko 18:15ean, Kirol Etxeko Silveti aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi Zumarraga, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Aitor Arozena, Kiroleko zerbitziburua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, Kirol Zerbitzuko teknikaria.
 - Ramón Martiarena, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren idazkaria.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
 - Teresa Ortega, Judo Federaziokoa.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.

Banatuak dokumentazioa

- . 2014ko maiatzaren 14ko bileraren akta.
- . 2014/2015 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programaren zirriborroa.
- . Arartekoaren ebazpenari erantzuteko gutunaren zirriborroa.
- . 2014/2015 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programaren lehengo zirriborroan egindako aldaketen laburpen dokumentua.
- . Boluntarioritza akordioetarako ereduak.

1) 2014ko maiatzaren 14ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Pako Urrestarazuk eskatu du Gipuzkoako Pilota Federazioko Juan Carlos Etxeberriarekin hitz egin zuenaren inguruan berak esandako hitz batzuk zuzentzea. Eskatu du Juan Carlosen izena ez, baizik eta bakar-bakarrik Gipuzkoako Pilota Federazioa aipatzea.

2) 2014/2015 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programa onartzea



Imanol Fernández de Larrinoak azaldu egin ditu datorren ikasturteko programan sartuko diren aldaketak; horiek labur azaltzen dira bileran direnei banatu zaien dokumentu batean.

Azalpenak eman ondoren, Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluak aho batez onartu du 2014/2015 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programa.

3) *Bestelakoak*

- Arartekoari erantzuteko gutunaren zirriborroa

Berlaratuek adostasuna eman diote Arartekoari erantzuteko gutunari; erantzunaren arrazoia Ane Olkutz Goikoetxea andreak eskaturik abiatutako 2746/2013/QC zenbakiko kexa espedientean emandako ebazpena da, horretan Errenteriako Udal Kirol Patronatuari gomendatzen baitio erreklamaziogilearen alabaren egoera berean dauden eskolaumeek parte hartu ahal izatea kirol hastapeneko unitateetako jardueretan, beren ikastetxeko eskola kirolean izen emanda dauden ala ez alde batera lagata.

Ondoren, Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko kideen sinadurak biltzeko modua aipatu dute, eta ondorioztatu modurik bideragarriena mezularitza zerbitzu bat erabiltzea izango dela. Sinadura bilketa hori abuztu amaieran edo irail hasieran egin beharko da.

Ramón Martiarenak adierazi du Arartekoaren gomendioaren aurreko argudioaren alderik ahulena dela kirol hastapeneko unitateak erregulatzen dituen araudian ez dela berariaz eskatzen horietan izena emandako eskolaumeek izena emanda egotea, halaber, beren ikastetxeko eskola kiroleko jardueretan. Horregatik, proposatu du araudi hori aldatzea, derrigorrezkotasun hori berariaz jaso eta behar bezala zehaztearren kirol hastapeneko unitateak osagarriak direla eskola kiroleko programako jardueretik.

- Boluntariotza kontratuak

Tetxus Barandiaranek uste du boluntariotza akordioetarako ereduak oso ondo daudela.

Pako Urrestarazuk boluntariotza zer den eta akordio horiekin zer lortzen den galdetu du.

Susana Santorrek -honen eskualdean akordio eredu horiek ari dira jada erabiltzen- erantzun du ezen horien bidez segurtasuna lortzen dela boluntarioarentzat, eta kontratu harreman bat halaber erakunde jakin batekiko. Boluntarioarentzako ordaina gauzatzeko hainbat gastu finantzatzen dira, hala nola dietak, garraioa, kirol ekipajeak etab., betiere horiek aurrez justifikatuta.

Pako Urrestarazuk galdetu du nola finkatzen den, esate baterako, 300 euroko ordain ekonomikoa boluntarioarentzat. Nola justifikatzen da kantitate hori? Ticket bidez? Elkarte bat al da boluntarioarekiko harremana duena?

Susana Santorrek esan du ezin diela kontu horiei guztiei erantzun, banatutako dokumentuak abokatu batek idatzi dituelako.

Aitor Arozenak galdetu du nola justifika daitezkeen gastu horiek.



Susana Santorrek esan du hilero 300 euro justifikatzen direla Baikara elkartean.

Aitorrek uste du eskola kiroleko monitoreei behar adina argibide eman beharko litzaiekeela, boluntariotzaren eta kontraprestazio edo ordainaren gai honen inguruan.

Kontseiluko kideek kontu horien guztien inguruan eztabaidatu dute.

Azkenean, proposatu dute gaia argitzen joan ahala kontseilukideei jakinaraztea.

- Eskola kiroleko entrenamenduei buruzko aplikazioa

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du Zarauzko elkarte batek aplikazio bat diseinatu duela kirol modalitateetako entrenamenduak diseinatzeko; aplikazioa telefono mugikorrekin erabiltzeko egokituta dago. Eta sustatzaileek ekintza honi zabalkundea ematea eskatu duela aipatu du halaber. Aplikazioa www.eskolakirola.com-en dago.

- Eskolaumeak entrenatzeko gaitasungabetzea

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu egin du Irungo auzitegi batek adingabeekin entrenamenduak edo bestelako edozein kirol praktika garatzeko gaitasungabetu duen pertsona baten kasua. Eskatu du Gipuzkoako eskualdeetan pertsona horren identitatea zabaltzeko, ikastetxeek eta klubek ez dezaten kontrata. Pertsona horren datuak lurraldeko udal, federazio, klub eta ikastetxeetara bidaliko dituzte.

- Kimu mailako jokalarri batekin gertatua

Imanol Fernández de Larrinoak azaldu egin du Gipuzkoako Futbol Federazioak bost hilabeteko zigorra ezarri dion kimu mailako eskolaume baten kasua. Gainera, hasiera batean inolako arau-hausterik egin gabeko beste eskolaume bati jarri zioten zigorra.

Pako Urrestarazuk uste du mutil hori beste kirol batzuetan aritzera behartu beharko luketela.

Asier Sarriegik uste du mutil horren ikastetxeak eta entrenatzaileak berak ere badutela gertatuaren gaineko erantzukizun parte bat ere.

- Mugikortasun planak

Pako Urrestarazuk galdetu du eskola kiroleko lehiaketako jardueretan bidaiengatiko diru laguntzak jasotzeko beste talde batzuekin partekatu behar ote den autobusa.

Aitor Arozenak erantzun du ez dela derrigorrezkoa.

Pako Urrestarazuk uste du kasu batzuetan zaila dela garraioa partekatzea.



Aitor Arozenak esan du ezen, printzipioz, helburua garraiobidea partekatzea dela, baina beste kasu batzuetan ere diru laguntzak jaso daitezkeela.

Pako Urrestarazuk eskatu du datorren ikasturtearen hasieran behar bezala azaltzeko gai hau guztia.

- Praktika onak kirol barrutietan

Arkaitz Angiozarrek proposatu du kirol barrutietako portaerarako jarraibide batzuk finkatzea. Hau da, horrelako barrutietan onartu ezin diren portaerak zehaztea. Eta horien berri ematea, ondoren, federazioei eta beste instantzia batzuei.

Proposatu dute hurrengo bilerarako kirol instalazioetako praktika egokien eskuliburu moduko bat prestatzea. Manolo Aierbek aipatu du Hernanin aita bati galarazi egin ziotela bere semearen partidetara sartu ahal izatea.

Ildo horretatik, Pako Urrestarazuk esan du ikastetxeen barnean beti modu egoki batez bideratu dituztela horrelako arazoak.

Tetxus Barandiaranek esan du ezen, eskola kirola haurren heziketaren osagarri bat baldin bada, ikastetxeak direla portaera horiek aztertzeke tokirik egokienak.

Jarduerak zertzen diren barrutietako harmailetan praktika egokiei buruzko gomendioak jartzeko aukera planteatu du Susana Santorrek.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 19:30ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria